



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

EHUko IKASLE KONTSEILUAK ESTATUTU BERRIEI BURUZKO TXOSTENA EGIN DU ETA IKASLEEN ESKUBIDE GEHIAGO ETA KONTZILIAZIORAKO, EUSKARARAKO ETA PARTE HARTZERAKO BENETAKO BERMEAK ESKATU DITU

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Leioa, 2025eko abenduaren 29a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak gaur goizean estatutu berrien zirriborroari buruzko txostena bidali dio EHUko Idazkari Nagusiari. Bertan oharrak eta hobekuntza-proposamenak jaso ditu, 2023an onartutako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikotik (USLO) eratorritako egokitzapen-prozesuaren baitan.

Estatutuak unibertsitatearen oinarritzko arau instituzionala dira. EHU nola antolatzen eta gobernatzen den zehazten dute, zer organo dauden eta bakoitzak zer funtzio duen, eta unibertsitate-komunitatearen eskubide eta bermeen esparru orokorra ezartzen dute. Estatutuetan jasotzen denak geroago erregelamenduak eta barne-arauak nola garatuko diren markatzen du, eta horiek zuzenean eragiten dute irakaskuntzan, ebaluazioan, parte hartzean eta zerbitzuetarako sarbidean.

Eztabaida- eta lan-prozesu propio baten ondoren landutako dokumentuaren helburua ikasleen premien eta interesen balorazio eraikitzailea eta aldarrikatzailea helaraztea da, eta ikasleen egunerokoan eragin zuzena duten gaietan jartzen du arreta. Txostenak estatutuen erreforma bermatzaileagoa proposatzen du hiru ardatzetan: kontziliazioa eta zainketak, ondorio praktikoekin, ikasketak karrera osoan euskaraz egin ahal izatea bermatuko duten hizkuntza-eskubideak, eta erabakiak hartzen diren organoetan benetan eragiteko moduko parte hartzea.

Txostena [hemen](#) kontsulta daiteke.

Pertsonen zaintza zentroan: kontziliazio erreala, osasun mentala eta deskonektatzeko eskubidea

Txostenak Estatutuek hasieratik zenbait eskubide jaso behar dituztela dio, geroko garapenen mende egon ez daitezen, garapen horiek berandu irits daitezkeelako edo, agian, ez direlako iristen. Ildo horretan, Kontseiluaren proposamen nagusietako bat **deskonexio digitalerako eskubidea** txertatzea da, unibertsitate-komunitate osoarentzako berme gisa. Helburua atseden denborak errespetatzea



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

da eta, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, ezarritako ordutegietatik kanpo erantzuteko presioa normalizatzea saihestea.

Kontseiluak azaldu duenez, egunerokoan posta elektronikoz eta plataformen bidez etengabe komunikatzeak "beti prest egoteko" dinamika sortzen du, eta horrek zuzenean eragiten dio ikasleen atsedeneri eta osasun mentalari. Gainera, mezu horiek irakasleengandik edo erakundeko arduradunengandik datozenean, botere-harreman bat dago, eta horrek zaildu egiten du norbanakoak bere kabuz mugak jartzeak. Horregatik, Kontseiluaren ustez, egoera horrek presio desegokiak normalizatu ditzake eta unibertsitatearen oinarritzko printzipioekin talka egin, alegia, eskubideetan, erantzunkidetasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako ingurunearekin.

Illo horretan, txostenak proposatzen du Estatutuek **orientazio psikopedagogikorako eta osasun mentala zein emozionala zaintzeko sarbidea bermatzea**. Kontseiluaren ustez, baliabide hori funtsezkoa da zailtasun akademikoak eta pertsonalak garaiz identifikatzeko eta horiei behar bezala heltzeko, eta, horrela, ikasleen aukera-berdintasuna indartzeko.

Horrez gain, Kontseiluak eskatu du egoera jakin batzuk Estatutuaren testuan bertan espresuki jasotzea, ez daitezen geratu formulazio orokor, interpretagarri edo anbiguoetan. Helburua da egoera horiek ondorio praktikoak izatea, besteak beste, praktiken antolaketan, presentzialtasun-baldintzetan eta ebaluazio-daten egokitzapenean.

Zehazki, txostenak proposatzen du zailtasun bereziko egoeratzat hartzea, besteak beste, **senideen heriotza, haurdunaldia, edoskitzea, ospitaleratzea eta baita ospitaleratze anbulatorioa** ere, eta, horrez gain, mendekotasuna duten pertsonen zaintza. Kontseiluaren ustez, egoera horien larritasuna berez dago egiaztatuta, eta, horregatik, berme argi eta zehatzekin estalita egon behar dute.

Kontseiluak gogorarazi du gaur egun indarrean dagoen araudiak ospitaleratzea baino ez duela jasotzen, berariaz, ebaluazio-datak aldatu ahal izateko arrazoi gisa. Eskubide hori ez zen berez etorri: Ikasle Kontseiluaren lanari esker txertatu zen, USLO onartu aurretik. Txosten honetan proposamena bikoitza da: eskubide hori Estatutu berrietan mantentzea eta, gainera, antzeko moduan egiazta daitezkeen beste egoeretara zabaltzea, hala nola haurdunaldira, edoskitzera edo ospitaleratze anbulatoriora.

Horrekin batera, txostenak eskatzen du kontziliaziorako eskubideak benetako ondorioak izatea kudeaketa akademikoan. Zehazki, proposatzen du



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

egiaztatutako arrazoi bat dagoenean ikasleek matrikula aldatu ahal izatea, gerora sortutako egoera batera egokitzeko, adibidez, ordutegi-aldaketa batek zaintza-edo lan-betebeharrekin talka egiten duenean. Eta egokitzen hori posible ez bada, ikasleek matrikula osorik edo zati batean baliogabetu ahal izatea, kalterik edo zigorrik jasan gabe.

Helburua da kontziliazioa ez uztea kasuz kasuko "konponbide" informalaren edo borondate onaren esku. Aitzitik, mekanismo argi eta bermatua ezartzea da, egoera pertsonal bereziek ikasleak irakaskuntza, deialdiak edo aukera akademikoak galtzera eraman ez ditzaten.

Karrera osoan euskaraz ikasteko bermeak

Irakaskuntza-hizkuntza aukeratzeko eskubidea funtsezkoa da unibertsitate ireki eta inklusibo baterako. Horregatik, Kontseiluak azpimarratu du eskubide hori ezin dela egon unean uneko eskaintzaren, talde mugatuaren edo hizkuntza bakarrean ematen diren irakasgai jakin batzuen mende, eta benetako aukera bermatua izan behar duela.

Horretarako, euskaraz ikasteko eskubidea indartzea proposatu dute. Txostenean eskatu dute ikasleek karrera osoan zehar prestakuntza euskaraz modu erreal eta jarraituan egin ahal izatea bermatzea, irakasgai zehatzetan botila-leporik sortu gabe eta, praktikan, hizkuntzaz aldatzera behartzen duten ibilbide partzialik gabe.

Ikasleen parte hartzea: ordezkaritza handiagoa eta parte hartze eraginkorra

Txostenak atal garrantzitsu bat eskaintzen dio unibertsitatearen gobernantzari eta ikasleen ordezkariari. Kontseiluaren ustez, unibertsitateko organoen legimititatea ez da egitura batean geratzen, baizik eta organo horiek osatzen dituzten kolektiboek, eta bereziki ikasleek, unibertsitate-komunitateko kolektibo ugariena izanik, erabakietan benetan eragiteko duten gaitasunean neurtzen da.

Klaustroa

Klaustroaren osaerari dagokionez (unibertsitate-komunitatearen ordezkaritza-organoren gorenaren), zirriborroan jasotako osaera-alternatibak aztertuta dituzten Kontseiluak, eta ondorioztatu du ikasleen pisua indartzeak nabarmen hobetzen duela ordezkagarritasuna.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Txostenak azaltzen duenez, gaur egungo konfigurazioan ikasleen pisua % 22 ingurukoa da. Aztertutako proposamenek, berriz, % 28ra hurbiltzea ahalbidetuko lukete. Horrek ikasleen ordezkaritza-gaitasuna nabarmen handituko luke, unibertsitate-komunitateko kolektibo ugariena den aldetik, eta beste sektore batzuen ordezkaritzan eragin nabarmenik eragin gabe.

Errektorea hautatzea

Kontseiluak positiboki baloratu du zirriborroak ikasleen botorako % 29ko haztapena aurreikusten duela Errektoretza hautatzeko prozesuan, gaur eguneko % 22aren aldean. Kontseiluaren ustez, haztapen horrek bermatzen du ikasleen parte hartzea ez dela sinbolikoa edo formala bakarrik izango, baizik eta erabakietan benetan eragiteko gaitasuna izango duela.

Ikasle Kontseiluak azpimarratu du erreforma hau aukera bat dela EHUK bere errealitate multicampusa jasoko duen eta unibertsitate-komunitateko kolektibo guztien, bereziki ikasleen, parte hartze eraginkorra bermatuko duen esparru-arau bat izateko.

EHUko Ikasle Kontseilua



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Contacto:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua